



Garean eta Tortotxiki, haur jarduerari norabide berria emateko prest

Roberto Urroz "Tortotxiki" fundazioaren sortzailea izateaz gain, haur jardueren dinamizatzaile eta bultzatzaile dugu. Garesen hasi zen duela lau urte eta berehalako arrakasta izan zuen haren proposamenak. Aurten, Gareanekin elkarlanean arituko da Lizarran 4-5 urte tarteko haurrekin.



Garean - Nola bururatu zitzaizun haur munduan sartzea? Izan ere, futbolaria izan zara, ezta?

Ro berto Urroz - Beno, berez haur hezkuntzako irakaslea naiz eta futbol profesionala alde batera utzi nuenean eskola ezberdinetan ibili nintzen klaseak ematen. Beraz, haurrekin ibiltzea ez da gauza arraroa niretzat.

Haur txikiekin psikomotrizitatea lantzen duzu.

Bai, multideporte edo psikomotrizitateko ihardueran 8 kirolean aritzen gara eta bakoitzean gauza ezberdinak lantzen dira, esate baterako futboleak, hokeyn edo saskibaloian behar den koordinazio mota ez da berdina. Horretaz aparte, jolas librea egiteko material ugari daukagu, eta umeak primeran pasatzen dute. Azken finean horiek dira gure helburuak: umeak ongi pasatzea eta jolasaren bidez beraien sistema motorra garatzea.

Bertze jarduerak batzuk proposatzen dituzu 6 urtetik aitzina. Azaldu labur.

Beno, orain arte urtero jarduerak berriren bat atera dugu beti, batez ere gurasoek interesa erakusten dutelako iharduera konkretu batean, eta hori ateratzea eskatzen didatelako. Hori izan da Tortotxikiren dinamika: gurasoak proposatu eta guk proposamen hoiek aurrera atera.

Aurten futbito, dantza, arte ederrak, trikitixa, kantua, eskupilota, aerobik eta psikomotrizitatea eskaintzen ari gara. Dantzan, trikin eta kantuan umeen taldeez gain, helduen taldeak ere baditugu.

Laguntza izanen duzu horrelako eskaintza egin ahal izateko...

Garesen udaletxeak azpiegiturak musutruk usten dizkigu, eta hori ezkertu behar da. Eguneroko lana nik egiten dut ere, egia da gurasoen laguntza ezinbestekoa izan dela: batez ere Tortotxiki

sortu genuen, nirekin hasi ziren horiek, beti laguntzeko prest egon dira, ideia berriak emanez eta gomendatzen nizkien lanak eginez. Denon artean iritsi gara honaino, nabaritzen da herrian behar zela horrelako zerbait eta jendeak proiektuarekin bat egin duela. Emaitzak hor daude: orain dela 4 urte, Garesen, euskaldunentzat eskolaz kanpo euskeraz egiteko aukera ez zegoen, eta orain 150 pertsona baino gehiago ditugu euskeraz egiten esparru berri horietan.

Nolako harrera egin dizute Lizarran?

Garean elkarteko jendea oso ilusionatuta ikusi dut aukera berri honekin eta beraiek posible egin dute aurten Lizarran Psikomotrizitateko jarduerak egotea. Egia da azken momentuan atera genuela eta arazo batzuk izan ditugula jarduerarekin hasteko. Dena den, bi saio daramatzagu jada eta umeak oso gustora ikusten ditut.

Garean eta Tortotxikiren asmoa Lizarran euskeraz "bizitzeko" esparru berriak sortzea izango litzateke, baina horretarako Lizarrako egoera hobeto ezagutu behar dut, gurasoen beharrak ikusi, beraien ideiak entzun... eta poliki poliki aurrera egin.

Bukatzeko, zein da sekretua haur jarduerak bat arrakastatsua izateko?

Faktore asko daude, baina garrantzitsuena monitoreak dela esango nuke. Edozein jardueratan umeek gustora egon behar dute eta ongi pasatu behar dute. Horretarako ezinbestekoa da monitoreak umeekin ongi moldatzea. Eta hori ez da ikasten, pertsona batzuek badute umeekin konplizitate puntu hori eta beste batzuek ez; naturala da, bakoitzaren izaeraren arabera.

Tortotxiki fundazioaz gehiago jakiteko:
<http://tortotxiki.jimdo.com/>

kotarro

22. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behe, ezk.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700

UDALBIDE
ELKARLAN ELKARTEA

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.



22.
zbk.

KOTARRO

2012ko azaroa

debaldeko alea

Garean-Jarduerak

TXOKOLIPUINAK

Azaroak 28
Abenduak 19
Urtarrilak 30
Otsailak 27
Arratsaldeko 18:00etan
La Bota elkarte

BERTSO AFARIA:

Oscar Estanga eta Unai Iturriagarekin
Gure Izkuntza elkarte
Prezioa: 10 € (tiketak salgai:
Ino liburudenda, Katxetas tabernan,
Ikastolan, AEK Euskalagian)

BERTSO ESKOLA

Asteazkenero, 19:00etan,
Gareanen egoitzan

IRAKURLE KLUBA

Azaroak 29
Itxaro Borda - *Boga, boga*
(Egilearekin solasaldia)
Urtarrilak 31
Harkaitz Zubiri - *Etxekalte*
Otsailak 28
Pello Lizarralde - *Orbanak*
Arratsaldeko 19.30ean
Lizarrako liburutegian

LIZARRAN KANTUZ

Azaroak 24
Urtarrilak 26
Arratsaldeko 19:30etan
Baxenabarra kaletik abiatuta

GAREAN IRRATIA

Larunbatero 13:05tik aurrera
Lizarrako Punto Radio-n (FM 93.4ean)



Garean
Euskaldunon Elkarte



Euskararen ISO 9.000

Euskara eta kalitatea. Entitate baten hizkuntza-egoera zein den kreditatzen duen Bai Euskarari Ziurtagiria; Lizarrako ostalari, denda, enpresa eta elkarte ziurtagiridunen ikuspuntutik.

Euskal Herriko gizarte-eragileek eskatuta 2000ko hamarkadaren hasieran Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria martxan jarri zuen. Honek helburu nagusi bat zuen: arlo sozio-ekonomikoaren euskalduntzean eragitea. Horrela, enpresak, saltokiak eta era guztietako entitateak euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko neurriak hartzen ari direla egiaztatzen du Bai Euskarari Ziurtagiriak. Horretarako, hiru maila eskaintzen zaizkie: "Zerbitzua eta lana euskaraz", "Zerbitzua euskaraz" eta "Bidean".

"Bidean" maila izateak euskararen normalizatorako neurriak hartzen eta garatzen aritzea

suposatzen du. Aurrera egiteko, eta, beraz, "Zerbitzua euskaraz" edo "Zerbitzua eta lana euskaraz" ziurtagiriak eskuratzeko, hainbat baldintza bete behar dira. Baldintza hauek bost irizpidetan laburbiltzen dira: (1) Erakundeko ki-deen hizkuntza gaitasuna; (2) Irudi korporatiboa eta hizkuntza paisaia; (3) Kanpo harremanak; (4) Barne harremanak; eta, azkenik, (5) Programa informatikoak. Hauen baitan, orotara, 137 item aztertzen dira urterik urte.

Euskal Herri osoan barreiatuta, egun, tamaina guztietako 1.414 ziurtagiridun daude, "Bidean" mailan 661, "Zerbitzua euskaraz"

Lizarrako iritziak eta esperientziak jaso nahi izan ditugu...



mailan 538 eta “Zerbitzua eta lana euskaraz” egiten dutenak 190. Erreportai honetan Lizarrako Ziuertagiridunen iritziak eta esperientziak jaso nahi izan ditugu eta horretarako gure hiriko zazpi ziuertagiridunekin banaka hitz egin dugu: **Gure Hizkuntza** eta **La Bota Elkarte**ko kideekin, **Ametsa, Berri** eta **Katxetas**eko ostalariekin, **Kulki Kultur Kirolak** eta **Etxe-Berria natur dendarekin**. Hauetatik lau “Bidean” mailan daude, Gure Hizkuntza eta Etxe-Berria “Zerbitzua euskaraz” mailan eta, azkenik, Kulkik “Zerbitzua eta lana euskaraz”.

Zerk bultzatu ditu Ziuertagiria eskuratzera?

Batetik, bi elkarteak haien xede dute euskara sustatzea: Gure Hizkuntzak kide izateko baldintza du euskalduna izatea eta La Bota Elkarteak euskara sustatzea du helburu estatutueta. Hortaz, Kontseiluak kanpaina abiatzean batzea erabaki zuten. Bestetik, denek aipatu dute “euskararekiko kontzientzia edo sentsibilitatea”, “izaera bat ematea elkarre edo negozioari” eta “euskararen garapenean laguntzeko” egiten dutela.

Elkarrizketetan barreiatzen gindoazen heinean, entitate zein negozioaren “kontzientziarekin” batera, beste argudio batzuk azaleratzen joan dira. Adibidez, Olga (Etxe-Berria) aipatu digun “Jakinarazteko nire dendan euskaraz egin ahal dela, erosteko arnagune bat dela”, edo Patxiren (Katxetas) “nirean, bezeroen exijentzia da euskara”. Gonzalok (Berri), bestalde, “euskaldunen mundu bat badela ikusten da”, eta segituan adierazi digu: “euskaraz eskatu nahi duenari eroso sentiarazi nahi diot”. Kasualitatez, honen adibidea izan dugu elkarrizketa egiten ari girela, ohiko bi bezero sartu baitira eta biak euskaraz zuzendu zaizkio eta zerbitzua hizkuntza horretan jaso dute ere. Batak 27 urte inguru izanen zituen eta besteak 18 bat.

Gonzalok errandakoaren haritik, Alfontso (Ametsa) hausnarketa osatu egin du: “gaztelaniaz eskatzea munduko gauzarik normalena den bezala, gauza bera behar du euskaraz. Horretarako erraztasuna eman behar da eta Ziuertagiriak



Olga Landa, Etxe-berria dendaren atarian.



bezeroari adierazten dio hemen euskaraz egiteko erraztasunak dituela”.

Amaitzeko, badira komentatu diren beste bi argudio; bata, euskal kontsumitzailearen ikuspegitik, Luisferrek (Kulki) kontatzen diguna: “estimaten dudun bezala edozein zerbitzutan euskara aintzat hartzea, batzuk ere nirean gauza bera eginen dutela pentsatzen dut”. Eta bestea, nolabait gehienek aipatutakoa, “negozioan eta maila profesionalean euskararekin hizkuntza-tentsioa mantentzen laguntzen dit” inguruko hizkuntza *oro-jatunen* aurrean.

Motibazioa, helburuak, nahiak argi utzi dizkigute, baina eta nola burutzen da hau dena? Zer zailtasun dituzte aurrera egiteko?

Ametsatik kontatu digutenez, aurtengo helburu ditu “loteriarren partiketan, Coca Cola kartelean eta larrialdi seinaleetan euskara txertatzea”, baina gehitu: “berau egiteko garaian, behar duzun momentuan, ez duzu buruan eta pasatzen zaizu”. Gure Hizkuntzatik ere antzeko arazoa aipatu digute:

bai
euskarari

zerbitzua
euskaraz





“uraren fakturak, argindarraren eskutitzak, aseguru... gaztelaniaz jasotzera ohituta zaude eta kostatzen da ohartzea ez duela zertan horrela behar”; eta La Bota Elkarteak, aldiz: “kideen ezagutzan eragin beharko genuke, 35 bazkideetatik bost bat gara euskaldun”.

Negozia zabaldu berri duen Olgak aipatu digu ordenagailuan produktu guztiak euskaraz *pikatu* dituela. Hala ere, Ziurtagiriaren maila gorena eskuratzeko hainbat egiteko ditu oraindik: negozioaren kudeatzeko kanpo harreman formalak euskaratzen saiatzea edo dendaren larrialdi seinaleak euskaratzea kasu. Azken honekin, “euskara buruan izan arren, berezkitasunak gaztelaniara darama, oharkabean gaztelaniaz jarri dizkirate larrialdi seinaleak”. Maila altuena eskuratu duen Kulkik berriz, aurtengo helburu du e-posta zerbitzaria euskaratzea.

Eta ez duenari? Zer erranen zeniokete egun Ziurtagiria ez duen Lizarrako entitateari?

Luisferrek aipatzen duenez, “bagaudela bezeroak kontutan hartzen dugunak euskara lantzen duten enpresak edo zerbitzuak, praktikoa dela, gehiago salduko dutela esango nieke”, eta segituan gehitu: “ikusten dugu kanpoko enpresek ere, euskararen aldeko izaera edo kontzientzia berezirik gabeko horiek, etekin ekonomikoaren helburu hutsarekin euskara txertatzen ari direla neurri batean gure inguruan”. Ondotik, Patxik argudioa osatu du: “Lizarrako komertzioak kompetentzia handia du inguruko gainazal handiekin eta hauek, negozioa ikusita, euskararekin kontsekuenteagoak dira komertzio txikiak baino”.

Kalitatezko zerbitzua emateko, behinik behin, bezeroari bere hizkuntzan artatua izateko aukera eman beharko litzaioke. Hortaz, barneratu eta zabaldu beharko genukeen ideia dugu elkarrizketetan aipatutako silogismoa: “turismoa ona da Lizarrarako, euskara ona da turismorako, beraz...”. Ikusita bisitarien jatorria, honakoa gaineratu genezake ere: *No parlo català però m'agradaria que tu ho poguessis fer. Si m'ajudes podré atendre't encara que no pugui contestar en català. Moltes gràcies i benvingut, ets a casa.* Zergatik ez jarri horrelako kartel bat negozioan?




KULKIren saioa Lizarrako Foru plazan festetako bezperan.

Euskaldunon merkatuari hurbilpena Lizarran

Aipatu hurbilpena egiteko, lehenik erran Lizarrako biztanlegoren %15 inguru dela euskalduna eta beste %10/15 inguruk nolabaiteko euskara ezagutza duela. Hortaz, 3.500 lagun inguru gaude euskara ezagutzaren batekin. Lizarraldean beste hainbeste euskaldun izanen direla pentsa liteke.

Bestetik, 2004tik 2012ko irailera bitarte 350.000 turista, erromes eta txangolarien bisita neurtu da. Hauetatik 86.000, laurdena, Hego Euskal Herrikoak (24.000 euskaldun eta 12.000 elebidun-hartzaile estimatzen). Erromesak alde batera utziko bagenitu, turista eta txangolarien %30,6a genituzke Hego Euskal Herriarrak. Ondoko grafikak agertzen da turista eta txangolarien jatorria herrialdearen arabera.

Bestalde, ezin ahaztu neurtzen ez direnak. Hau da, eskualde euskaldunenetako opor-biztanleria handia dugu: uda edo asteburu pasa, jaietan edo ferietan, Erdi Aroko astean, Garagardo Jaian, bigarren etxebizitza Lizarraldean duten gipuzkoar zein bizkaitar ugari dago edo dator gurrera. Hauen kopurua ez dago neurtuta, baina nabaria da asko direla.



Alfontso, Gonzalo eta Patxi ziurtagiriak solasean.





Irakurle kluba: literaturagune, emoziogune...

GAREANek, joan den urriaren 25ean, hasiera eman zion irakurle klubaren hirugarren edizioari, aurreko urteetako esperientzia onek hartaraturik. Gogoratu nahi dugu horrelako talde bat aurrera eramateko arrazoi nagusietarik bat izan zela nolabaiteko beharra —eta hutsunea— ikusten genuela arlo horretan, urte luzez ez baitzen gure eskualdean zenbait literatura-lanen inguruan euskaraz solasteko, irakurle klub bat bezalako iritzigune —eta emoziogune— batean.

Proiektu honen helburu nagusia, aurreko bi urteetan adierazi bezala, eztabaida izanen da: kide guztien iritzia, ahotsak eta emozioak aditzea, liburu bera irakurtzeko modu ezberdinak kontrastatzea, eta, bide batez, bertze liburu batzuez ere solastea, eta, ildo hori harturik, menturaz, baita bizitzaz ere; eta, gainera, euskaraz egin ahal izatea.

Oroitarazi nahi dugu kluba euskaraz guti-asko irakurtzen duen orori dago zuzendua, hortaz, nahikoa da gutienezko irakurzaletasuna zein literaturzaletasuna izatea bertan parte hartzeko. Beraz, jendea animatu nahi dugu parte har dezan; gainera, ez da behar-beharrezkoa saio guztietara joatea eta, ikasturtean zehar, norberak ikusiko du noiz parte hartu.

Edizio honetarako ere sei saio prestatu dira, eta ondoko sei liburuak hautatu dira. Hasteko, **Toni Morrison** emakume afroamerikarrak idatzitako *Maitea* eleberria izanen genuen solasgai aitzineko saioan. 1987an argitaratu zen eta Pulitzer Saria irabazi zuen urte berean. Anton Garikanok maisuki euskaraturiko eleberri honek ez du sailkapen errazik onartzen, hainbertze gai eta estilo gordetzen ditu bere baitan: arraza, sexu eta klase arteko gatatzka-

ren deskripzio errealistaz gain, fantasia eta elementu mitikoak ageri dira, oso errotuak beltzen folklorean. Prosa gogor eta aldi berean liriko du, eta hainbat irakurketa izan ditzake: mamuen istorioa, eleberri politikoa edota feminista. Baina horien guzietan gainetik, identitatearen eta maitasunaren inguruko hausnarketa sendo, xehe eta elaboratua da.

Bigarren saioa azaroaren 29an izanen da, eta Baionan sorturiko **Itxaro Borda** idazlearen bisita izanen dugu, bere hondar nobela den *Boga Boga*-ren kariatara. Hortaz, plazer handia izanen da guretako euskal literaturaren eremuan luzaz ibili den idazlea gure artean izatea. Saio berezi horretara ere edonor joan ahalko da, eta Liburutegiko beheitiko aretoan eginen dugu. Liburuaz denaz bezainbatean, aurtengo maiatzean argitaratu zen, eta aspaldiko desagertze bat argitzen tematuko da, horixe izanen da hari nagusietako bat eta nobelari halako eleberri beltzaren edota detektibe generoaren ikutua emanen diona. Baina hori baino gehiago da Itxaroren irakurleek aski ongi ezagutzen duten Amaia Ezpeldoi detektibe (jadanik 50 urte beteak dituen euskal detektibe lesbiana) berriz ere protagonista duen liburu honek eskaintzen diguna: BABeko (Baiona-Angelu-Biarritz) gizartearen erradiografia zorrotza, identitateari buruzko hausnarketa sakona, eta Euskal Herriaren azken 30 urteetako ibilbidearen inguruko zirtu gazi-gozaok, bertzeak bertze.

Hirugarren liburua **Harkaitz Zubiri**ren *Et-xekalte* izanen da, bere lehen eleberria da eta enpresa munduan girotutako narrazioa da, enpresa bateko langileak dira eleberriko pertsonaia eta ardatz. Eta horien arteko harremanak

Jatetxea
Volante

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak
Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695



LIZARRA

Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINZA

Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarjard@hotmail.com





ederki deskribatuko ditu, pertsonaia guztiak amildegiaeren ertzean daudela dirudi, eta interesak eta botere harremanak gailenduko zaizkie itxurazko helburu noblei.

Hurrengo liburua **Pello Lizarralde**ren *Orbanak* dugu. Saio hau otsailaren 28an izanen da, eta oraingoan ere idazlea etorriko da gurera. Bere azken eleberrri honek badu nolabaiteko lotura aurreko *Larrepetit* gogoangarri harekin, oraingoan ere bidea eta ihesaldia izanen baitira protagonista. Berrogeita hamargarren hamarkadako Nafarroako mendialdeko herri ttar bat izanen da gertaleku nagusia, eta eleberria bi plano narratibok harilkatuko dute, eta kontraste handian dauden bi plano horiek emanen diote erritmo egokia.

Azken aurreko saioaren azterlana berriki Euskadi Saria —egia errateko, bai lan honen kasuan nola azken saioko itzulpenarenean, sariak banatu aitzin hautatu genituen, eta hein batean pozgarria ere bada— jaso duen **Harkaitz Canoren** *Twist* nobela izanen da. Eleberrri mardul bezain eder eta elaboratua da. Gure historiaren pasarte baten berrirakurketa da idazleak proposatzen diguna, ETaren kontrako gerra zi-

kineko gertakari latzenetako batean oinarritzen baita, baina gatazkaz bainoago adiskidetasunaz, absentziak eta erru sentimenduz hitz egingen digu lan bikain honek.

euskaraz guti-asko irakurtzen duen orori dago zuzendua...

Eta azken saiorako **Alaa Al Aswani** idazle egiptiarren *Jakobian eraikina* izanen dugu solasgai. Arestian erran bezala, nobela honek ere Euskadi Saria jaso berri du fikziozko itzulpenen arloan. Jakobian izeneko eraikina armeniar mi-

lioiduna zen Jakobian jaunak 1930ean eraikitako etxebizitza luxuz beterikoek osatzen zuten, eta garai hartako europar arkitektura ereduie jarraiki zien. Eleberria halako abiapuntu bat da egiptiarren egoera konplexu eta nahasiaren portreta aberats bat egiteko, kontu handiz atunduriko marra nagusi batzuen inguruan. Orainalditik iraganera salto egiten du aunitzetan, eszena gogorak ere deskribatzen ditu, baina funtsean erretratu kritiko zabal eta sakona eskaini digu idazleak.

Akitzeko, gogoratu nahi dugu saio guztiak Lizarrako Liburutegian egingen direla. Bertzerik gabe, animatu eta zatozte denona den irakurle klubera honetara!



IRAKURLE KLUBAREN EGUTEGIA

Saio guztiak, Lizarrako Liburutegian izanen dira, 19:30an (beti ortzegunetan).

Urriak 25, ortzeguna, 19:30	<i>Maitea</i> , Toni Morrison
Azaroak 29, ortzeguna, 19:30	<i>Boga boga</i> , Itxaro Borda: idazlea etorriko da
Urtarrilak 31, ortzeguna, 19:30	<i>Etxekalte</i> , Harkaitz Zubiri
Otsailak 28, ortzeguna, 19:30	<i>Orbanak</i> , Pello Lizarralde: idazlea etorriko da
Apirilak 25, ortzeguna, 19:30	<i>Twist</i> , Harkaitz Cano
Maiatzak 30, ortzeguna, 19:30	<i>Jakobian eraikina</i> , Alaa Al Aswani

Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
Bisita gidatuak
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierrri) NAFARROA
info@lezaun.com - www.lezaun.com
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

LIBURUDENDA

INO

PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA





Foto-inkesta

Emakumeak eta literatura

Azkenaldian izan den "Maria de Maeztu" literatur lehiaketa dela eta emakumeek literaturarekin duten harremanaz planteatuko ditugu gure foto-inkestako galderak. Itxuraz eta askoren ustez emakumeek gizonak baino irakurzaletasun handiago dute, emakumeen eta liburuen arteko erlazioa estuagoa da... Baina zer iritzi dute Lizarrako emakumeek gai honetaz? Hiru galdera hauek egin dizkiegu:

- 1- Zein emakume idazle aipatu nahi diguzu, euskaraz nahiz erdaraz idazten duena?
- 2- Idazleei begira, ba ote dago emakumeen literaturarik, hau da, emakume idazleek osatzen al dute genero bereziren bat?
- 3- Irakurleei begira, gizonak eta emakumeek berdin irakurtzen al dute, zer alde ikusten duzu gizon-emakumeen artean irakurketan?



Elena Urabaien

1. Irati Jimenez aipatuko nuke gaurko emakume idazleen artean. Azken bolada honetan idazle honen bi liburu irakurri ditut eta biak gustatu zaizkit.

2. Ez dut uste emakume idazleen literatura dagoenik, ezta gizonekoena ere. Badaude emakume idazleek idatzitako liburuak baina ez dute osatzen ezer berezirik. Hala ere badira

emakume idazle batzuk beste sentimendu edo ikuspegia bat dutenak, gizonak idazleek lortzen ez dutena. Baina hori emakume idazle batzuek ere ez dute izaten, zenbaitek besterik ez.

3. Ez dut uste sexuaren arabera denik, sentsibilitate desberdineko irakurleak daude, bai gizonak bai emakumeak, denetik dago.



Celes Gomez de Segura

1. Azkena irakurri dudana aipatuko dizut. Maria de Maeztuk idatzi zuen liburu bat irakurri berri dut, emakumeen egoerari buruz ospatu zen kongresu bateko aktak biltzen dituen, oso interesgarria izan da.

2. Nik uste dut batzuetan baietz, badagoela emakumeek idatzitako literatura berezia, adibidez idazle feministek emakumeen artean beraiek duten mezua zabaltzeko idazten duten literatura.

3. Emakumeek gehiago irakurtzen dugula uste dut, gizonak beste kontu batzuetan ibiltzen dira, hala gertatzen da behintzat nire adinekoen artean, agian gazteagoen artean ez, ez dakit.



Irma Aspe

1. Oraintxe bertan ari naiz liburu bat ingelesez irakurtzen, Jane Austen-en *Pride and prejudice*, euskaraz "Harrotasuna eta aurreiritzia" izango litzateke. Amodiozkoa da eta XIX. mendeko Ingalaterran Victoria erreginaren garaiko bizimodua erakusten du. Gustatzen zait.

2. Emakumeen ikuspegia adierazteko eta historian zehar eduki duten rola hausnartzeko sentikortasun handiagoa dute emakume idazleek.

3. Berdin uste dut. Pertsona bakoitzak duen astiaren arabera da, ez dut uste beste alderik dagoenik gizonen eta emakumeen artean.



Alba Irisarri

1. Horrela bapatean burura datorkidana *Harry Potter* da, urte batzuk badira irakurri nuela, egilea, J. K. Rowling, emakumea da, gainera liburu asko saldu du eta arrakasta handia izan du.

2. Nire ustez ez da garrantzitsua sexua, hau da, ez du eraginik idazlea gizona edo emakumea den, baizik eta zer motatako pertsona den.

3. Irakurleei dagokienez ere nik uste dut zaletasuna dela kontua, berdin dio gizona edo emakumea izan. Beharbada gai aldetik gizonak nahiago dituzte akzio gehiago duten eleberriak eta emakumeek berriz sentimenduak dituztenak.



Estudio de Gramática, 2
31200 Lizarra- Nafarroa

Tel. 948 550 010






denborapasak



Gurutzegramak



Euskal herriko emakumeak

Goitik behera

- 1- Aitarekin ezkonduko aitona alaba
- 2- Maddalen...
- 3- Senidearen emaztearen gurasoen alaba
- 7- Arraren senide emea.
- 9- Jainkosa.
- 10- Geroa Bai, Uxue...

Ezker eskuin

- 4- Lehendakarigai lizartarra.
- 5- Zortzi milako guztiak.
- 6- Olentzeroren laguna, Mari...
- 8- Emaztearen anaiaren amonaren alaba.
- 11- Emearen senide emea.
- 12- UPD ... Diez.

Euskalglifoa

Lizarrarekin zer ikusia duen feminista



Euskalglifoa

Emakumeak

MM

Udalbide.net
www.udalbide.net

ALBISTEA ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udalberria eta ikus ezazu zure UDALERRIAREN informazio guztia eguneratua.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAKONEAN atalaren bitartez. Hor aurkituko dituzu Lurr-aldea, Biztanleria, Ekonomia eta gizartea, Euskara eta hezkuntza, Udalerriak eta Euskal Diaspoaren inguruko gaurkotutako datu guztiak.

Eta harpidetu zaitez BULETIN ASTENARI ELEKTRONIKOra. Astero jasoko dituzu azken-azkeneko berriak.

ZUREKIN

www.udalbide.net
www.udalbiltza.eu

Masajista diplomaduna
Goi mailako kosmetika
Aurpegiko eta gorputzeko tratamendu berriak

Mirari
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella
t: 948 554 001

www.centromirari.com

